

# Mercadona ikur duen herri ereduaren aurka

Barañainen, herrian ireki nahi duten Mercadona saltoki valentziarraren aurka mobilizatu da bizilagun talde bat. Sestaon, haserrea eragin du hiri-antolamendu plana aldatu eta supermerkatuari lursail publiko bat saltzeko Udalak duen asmoak.

| JON TORNER ZABALA |

MERCADONAREN proiektua “inposatu” duten Barañaingo UPN, PSN eta PPko udal ordezkarien herri eredu a gogor kritikatu du bizilagun taldeak: “Eztabaidari muzin egin diote, auzokideen hartu-emanen aurrean harreman komertzialak sustatu dituzte, bertoko produktuei baino, inportatuei eman diete bide, komertzio txikia desagertzeko arriskuan paratu dute eta aisialdirako egokitutako esparru publikoak saltoki handiei eskaini zaizkie”.

Herritarrek diote lau haizetara iragarritako 30 lanpostu berriak baino gehiago izango direla deuseztuko direnak. “Gainera ez dute esaten jada Mercadonako langile direnek izango dutela lehenetara Barañainera mugitu nahi izanez gero. Bestetik, kaleratzeengatik jaso dituzten salaketak ezkutatzen ari dira. Diziiplina gabezieta argudiatutako kalera-tzeak dira, gaixotasun baja hartu izanari erantzuten diotenak”.

Salatu dute Mercadonak ez duela kontuan hartzen saltzen dituen produktuen jatorria: “Prezio baxuenak bilatzen ditu, produktu ahalik eta merkeenak eskaintzeko; inguruko ekoizleek ezin dituzte halako salneurriak onartu”.

## Sestaoko orube publikoa, eztabaida iturri

Otsailean Sestaoko Udalak erabaki zuen hiri-antolamendu plana aldatzea, jabego publikoko 18.000 metro koadroko Mendietako orubea “enplegua sortu, ekonomia suspertu eta zonaldea urbanistikoki bultzatzeko” baliatu ahal izateko, EAJko zinegotzi Leire Corralesek adierazi zuenez. Jeltzaleek, PSEk eta PPK babestu zuten erabakia eta EH Bildu aurka agertu zen. Udalak emandako urratsak bidea erraztu zion lursaila begiz jota duen Mercadonari. Ekainean, ordea, Mendietako orubearen erabilera berriari buruzko eztabaida atzeratzea erabaki du Udalak, PSE, EH Bildu eta



Mercadonak saltoki txikiei kalte egingo diela salatu zuten ekainaren 20an Barañainen egindako giza katean.

PPren aldeko bozka eta EAJren abstentzioarekin, informazio gehiago bildu eta adostasun zabalagoa lortzeko helburuz.

Proiektuak aurrera egingo balu, Mercadonak 7.000 metro koadro hartuko lituzke, eta gainerakoa urbanizatu egingo litzateke, Udaleko diru-kutxentzako gasturik eragin gabe. Bien bitartean, hainbat herritar mugitzen hasi dira eta Udalari eskatu diote Mercadona herrira ekartzeko erabakia birplanteatzeko. Mendietako lursaila erabilera publikorako egoitu dezala eskatu dute, hasiera batean iragarri zen moduan.

## 40 supermerkatu 6 urtean

Iaz ireki zen lehendabiziko Mercadona Nafarroan, Antsoainen. Aurretik da irekitzekoa Gipuzkoako –eta EAEko– aurrenekoa, Irungo Txingudi merkatalgunearen alboan. Datozen sei urteetan 45 supermerkatu zabaldu nahi ditu Hego Euskal Herrian. ■

